

IRATI

# Paul Urkijo: “Jendeak bere egin du filma”

IRENE ELORTZA GEREÑO

Paul Urkijo Alijoren bigarren film luzeak, *Irati* oda mitologiko-historikoak, estreinaldiko asteburuan euskarazko lan batek inoiz bildutako ikusle gehien izan zituen pasa den otsailan. Harrezkero, ibilbide oparoa egin du zinema areto zein munduko hainbat jaialditan.

**la urtebeteko ibilbidea egin du filmak Sitgeseko Fantasiako Nazioarteko Zinema Jaialdian aurkeztu eta publikoaren saria jaso zuenetik. Harrezkero, sari gehiago lortu ditu han-hemen eta errekorak hautsi ditu Euskal Herriko zinema aretoetan. Nola bizi izan duzu bide hau? Zerekin geratzen zara? Gauza asko dira! Filmak egitea jada sari bat da, eta horrelako film bat euskaraz eta euskal mitologiak egin ahal izatea, horixe da saririk handiena. Hasi ginenetik, Sitgesen estreinatu genuenetik, publikoaren harre-ra oso ederra izan da. Gainera, sari asko irabazi ditu. Baina izugarriko gozamina izan da jendearen bertotasuna, nola filma bere egiten zuen eta nola maite zuen ikustea.**

Datuek diotenez historiako film euskaldun takileroena izan da. Oso



pozik nago. Harrigarria da zein ondo funtzionatu duen, kontuan izanda gaur egungo egoera eta fantasiako filma dela, euskaraz egina.

**Zergatik hautatu zenuen VIII. mendeko euskara filmerako birsortzea?**

Euskal mitologiako istorio bat kontatzeko orduan guztiz argi ikusten nuen euskara izan behar zuela hizkuntza, eta gainera filmari sinesgarritasuna eta textura emateko garai hartako euskara erdi-sortu (hizkuntzalari askorekin hitz egin dugu, dokumentatu

eta abar) behar genuela. Garai hartako euskarara hurbiltzen saiatu gara orduko soinuak berreskuratzeko eta publikoa garai hartan murgiltzeko.

**Errementari zure lehen filmean ere euskal mitologian kokatu zenuen istorioa. Oraingoan, aldiz, epikotasunetik heldu diozu gaiari.**

Betidanik eduki dut euskal mitologiarekiko maitasuna eta istorioak kontatzen ditudanetik, eta, batik bat, film labur zein luzeak egiten hasi nintzenetik, beti neukan buruan euskal mitologiako film handi bat egin nahi nuela, berez daukan handitasun epiko hori aurkezteko. Erdi Aroko garai mitikoan kokatuta, gainera.

90eko hamarkadan irakurri nuen “El ciclo de Irati” komikia eta bertan agertzen ziren filmeko pertsonaiak, Eneko Aritza eta Irati, erdi-lamia. Gaztetxoentzako komikia zen, fantasia handikoa, belgiar estiloko komikien irudi antzekoak zituena. Niri iruditu zitzaidan bi pertsonaia eta bi mundu horiei buruz hitz egiteko, eurek gorpuzten duten dualismoaz hitz egiteko (kristautasuna/paganismoa, gizonetza/emakumetza, terrenala/izpirituala...) oso pertsonaia botetsuak zirela. Komikiaren egileekin hitz egin nuen eta esan nien adap-

tazio libre bat egin nahi nuela. Ondo iruditu zitzaizen eta lanean hasi nintzen askatasun osoz. Orreagako guduaren ondoren kokatu nuen kontakizuna eta, mitologiari dagokionez, euskal panteoiko irudirik inportanteena aukeratu nuen, Mari jainkosa, hausnarketa antropologikoa ere bultzatzeko.

**Luxuzko aktore taldea lortu zenuen horretarako.**

Euskal Herriko aktore bikainak dauzkagu. Eneko Sagardoyk Eneko Aritzarena egingo zuela argi neukan, bere presentziagatik eta sekulako indarra duelako. Itziar Ituño aiposena zen Marirena egiteko. Eta Ederne Azkaratek erabat txundituta utzi ninduen, lehendabiziko probatik; pertsonaiak behar zuen indar eta energia animalia hori zuen. Gozamina izan da, oro har.

**Nola sentitzen zara filma Zinemaldian erakusteko aukeraren aurrean?**

Guretzako filmaren zikloaren amaiera bikaina da Euskal Herriko Zinemaldian egotea. Mundu osoan bira eman ostean hemen lagun artean berriro filma pantaila handian ikustea gozamina da, bidea amaitzeko.

Zinemaldiko informazio guztia  
[www.naiz.eus](http://www.naiz.eus)

naiz: